

Arteei, Kultura-industrieari eta Sormen-industrieari buruzko estatistikak (2023)

Datuen laburpena

2026ko apirila




**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura


Aurkibidea

1. Ikuspegi globala.....	3
2. Azterketa sektoreka.....	5
Agenteak	5
Diru-sarrerak.....	6
Enplegua.....	7
3. Zeharkako irakurketak.....	9
80/20 (diru-sarrerak)	9
80/20 (enplegua)	10
Emakumeen ehunekoak	11

1. Ikuspegi globala




Arteei, Kultura-industriei eta Sormen-industriei buruzko Estatistikaren datu nagusiek erakusten dutenez, 2023an **1.117 agentek** osatzen dute panorama globala, **957 milioi euroko diru-sarrerak** dituzte, eta **9.050 langileri** ematen diete lana.



- Estatistikako **agenteen % 66,7 kultura-sektorekoak** dira; **diru-sarrera guztien % 60,5** sortzen dute eta estatistikako **langile guztien % 47,8ri** ematen diote lana.
- Agenteen **% 33,3 sormen-industrietakoak** dira; **diru-sarrera guztien % 39,5** biltzen dute eta estatistikako **langile guztien %52,2ri** ematen diote lana.
- Sektorearen **balantze ekonomikoa**, oro har, **positiboa** da. Sormen-sektorearen balantze osoa (20,9 milioi euro), kultura-sektorearena baino apur bat gutxiagokoa da (22,5 milioi).
- Enpresa bakoitzeko **langileen ratioa 8,1 pertsonakoa da batez beste**. Sormen-sektoreetan, 12,7 langilek lan egiten dute enpresa bakoitzeko; kultura-sektoreetan, berriz, 5,8k.


2. Azterketa sektoreka

Agenteak




Datuak sektoreka aztertuz gero, ikusten da arte eszenikoaren sektorea dela agente-bolumen handiena duena, eta ondoren datoz ikus-entzunezkoak, musika, publizitatea eta liburua. Kultura-sektoreek dute agente-kopuru handiena, salbu ikusizko arteak. Modaren eta bideojokoaren sektoreek dute agente-bolumen txikiena.

Diru-sarrerak




Diru-sarrerari dagokienez, bi arlo nabarmentzen dira: ikus-entzunezkoak (kontuan hartu behar da telebista publikoaren eragina) eta publizitatea, biak ere beren sektoretako batezbestekoen gain-gainetik. Sektoreka, kultura-industrietan, ikusizko arteek dute negozio-bolumen txikiena; sormen-industrietan, berriz, bideojokoek.

Enplegua



Enpleguan, ikus-entzunezkoak, publizitatea eta Hizkuntzaren industriak gailentzen dira, batezbestekoen oso gainetik. Ikusizko arteak daude kultura- eta sormen-sektoreetako enpleguaren maila apalenetan.




Lurraldeka, Bizkaia nabarmentzen da gainerakoen aurretik, bai agenteen bolumenari dagokionez, bai diru-sarrerei eta enpleguari dagokienez.

Datuak kultura- eta sormen-eremuaren arabera aztertuz gero, alde txiki batzuk ikusten dira. Kultura-industriek agente gehiago dituzte Bizkaian eta Gipuzkoan, sormen-industriek baino; diru-sarrerak eta enplegua proportzionalki txikiagoak dira Gipuzkoan, eta Bizkaian gailentzen dira.

Sormen-industriek proportzio handiagoa erakusten dute lurralde-banaketan, agenteen maparen eta sortzen dituzten diru- sarreren artean.

3. Zeharkako irakurketak

80/20 (diru-sarrerak)




Datuak 80-20 arauaren edo Paretoaren printzipioaren arabera aztertuz gero (helburua da aldeak bilatzea, ebaki bat eginez sektore bakoitzean diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20aren eta gainerako % 80aren artean), ikus daiteke agente bolumen txiki batek biltzen dituela diru-sarrera gehienak, sektore guztietan. Sei kasutan, sektoreko negozio-bolumenaren %


80 gainditzera ere iristen dira: musika sustatzaile pribatuak, Ikusizko arteetako aretoak, musika programatzaile publikoak, arte-galeriak, hizkuntzaren industriak eta arte eszenikoetako jaialdiak.

Enpleguaren kasuan ere kontzentrazio nabarmena dago, baina asimetria ez da hain nabarmena. Agenteen % 20k musika programatzaile publikoen eta hizkuntza-industrien kasuan soilik gainditzen du enpleguaren % 80.

80/20 (enplegua)



Emakumeen ehunekoak



Enplegu-datuak are gehiago xehatuz gero, eta genero-ikuspegia kontuan hartzen bada, sektore feminizatuenak eta maskulinizatuenak ikus daitezke. Batez ere, modak ematen die lana emakume askori. Liburuen sektoreak, hizkuntzaren industriek, publizitateak, ikusizko arteek eta diseinua hizkuntzaren industriek ere emakume gehiago hartzen dituzte plantillan. Musikan eta, batik bat, bideojokoetan, presentzia txikiagoa dute.